



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 20a

4. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak aurreratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak egin duen curriculum proposamen berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, erakusketa publikorako zentroyen jarduerak tipifikatu eta sustatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernua prest dagoen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko, erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta antolatuko dituen. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroyen datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, zezenketetarako azientarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz-hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Urdazubiko guardia medikoei eta Elizondoko Oinarrizko Osasun Eskualdeko plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Mendillorriko BHIn nahiz Berako Toki Ona institutuan antolatutako “Herri Eskolak” izenekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, VI. Inkesta Soziolinguistikoa herritarrek euskararekiko duten jarreraz egindako galderari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunearen izena aldatzearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, *Telleria eta gero, zer?* liburua nahitaez irakurri beharri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hainbat arazoirenen arabera izandako hilkortasun-tasei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00299), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ardurapean dago arrazakeria eta xenofobiaren kontrako borroka plana egiteko enkargua. Zuzendaritzak gaiari buruzko jakinarazpena jaso zuen enkargua daukan enpresatik, eztabaida taldeak hasi eta gero.

Merkatu-ikerketetan parte hartzen duten pertsonen sariak ematea ohitura da ikerketa taldeetan; ez da ordainsaria, baizik eta talde horietan parte hartzen emandako denbora eskertzeko saria. Hain da ohikoa ezen, borroka plan hori prestatzen ari zenean, aldi berean ia-ia, Iruñeko Udalak bere Gazteria Plana prestatzen parte hartzeko prozesu bat egin, eta horretan ere konpentsazio ekonomikoa eman baitie parte hartu duten gazteei.

Goian esandako kontzeptuarengatik, guztira 51 pertsonari eman zaie saria. Bakoitzak 30 euro jaso ditu eztabaida-taldeetan edo taldeko elkarrizketetan parte hartzeagatik. Ez da saririk eman banakako elkarrizketetan parte hartzeagatik.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak ordaindu behar du sari horien zenbateko osoa, kontratua-ren prezioaren barnean, eta Departamentuak ez du inolako gehigarri ordaindu behar.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## Galdera, Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsei buruz Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00300). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Egin diozue eskaera Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsari (NBEF), Bruselatik jaso

dituen aurrerakinetako funtsak Nafarroarentzat libera ditzan?

Erantzuna.

2021eko urriaren 13an NBEFi 54,5 milioi euro eskatu zitzaizkion, eta 2021eko urriaren 18an sartu ziren Nafarroako Erakunde Ordaintzailearen kontuan. Hala, funtsak Nafarroako Gobernuaren banku-entitate batean sartu ziren egun horretan bertan, unitate beretik ordainketa-agindua eman zen, banku-entitateak laguntzen eskatzaileen-tzako ordainketak egin zitzaizkien.

Argitu behar da, ordea, NBEFek Erakunde Ordaintzaileari eskualdatzen dizkion funtsak finantzaketa nazional aurreratua direla; izan ere, funts horiek Estatuko Diruzaintza Nagusitik datoz. NBEFek ez ditu EBren funtsak jasotzen nekazariei ordaindu eta Batzordeari gastuaren aitorpena egin arte.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak aurreratzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak aurreratzeari buruz Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00301), hau jakin nahi baitu: Ordainduko al dituzue, urria-

ren 16tik aurrera, NPEko ordainketen aurrerakinak, % 70ekoak zuzeneko ordainketen kasuan, eta azalerak kudeatzeko sistema integratuarekin zerikusia duten Landa Garapeneko zenbait ordainketaren aurrerakinaren % 85? EBk hala baimentzen du.

Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak:

NPEko aurrerakina baimendutako lehenbiziko egun baliodunean ordainduko da, hau da, urriaren 18an.

Landa Garapenari dagokionez (FEADER SIGC), ez da aurrerakinik izanen, ordainketa Nafarroako Aurrekontuen kargura egiten delako eta, urte anitzekoak onetsita dauden moduan egonda, eskaera aurkeztu eta hurrengo urtean bakarrik ordain daitekeelako laguntza. Gainera,

ezin da aurrerakinik eman harik eta titular guztien betekizun eta konpromiso guztien kontrolak amaitu arte, eta horiek gehienetan hurrengo urtera arte irauten dute; edota, laguntzen araubidearen espezifikotasuna dela eta, administrazio-kontrolak eta bertatik bertarakoak ez dira bukatzen eskaeraren urteko urrirako.

NBEFen zuzeneko ordainketei dagokienez, finantza-ekitaldiko lehen egun baliodunear funtsak eskatu dira, eta urriaren 18 (astelehena) alde-

ra ordainduko dira. Azalergatik NPE NBEF laguntzen aurrerakina ordainduko zaie 10.189 titularri: guztira 54.670.414,30 euro, hau da, laguntza desakoplatuen (oinarrizko ordainketa, ordainketa berdea, nekazari gazteak eta nekazari txikiak) eta akoplatuen (labore proteinadunak, fruitu eskoldunak, lekaleak, erremolatxa eta tomateak) % 70. Ez da aurreratu arrozerako laguntza.

Hauek dira kontzeptuak:

Lerroa	Titularrak	Zenbatekoa
(1) Oinarrizko ordainketa	8.699	36.044.781.77
(2) Klimaren eta ingurumenaren onerako diren nekazaritzako jardunbideetarako ordainketa (ordainketa berdea)	8.252	16.636.121.37
(6) Nekazari gazteentzako ordainketa	207	593.036.19
(9) Nekazari txikien araubidea	1.407	658.390.24
(202) Labore proteinadunetarako laguntza	1.640	496.189.58
(203) Fruitu eskoldunetarako eta algarroborako laguntza	269	13.875.78
(204) Kalitatezko lekaleetarako laguntza	4	2.235.32
(205) Azukre erremolatxarako laguntza	4	11.892.84
(206) Industriadunetarako tomaterako laguntza	89	213.891.21

EGEFen kargura LGPko laguntzen aurrerakina ordaintzeari dagokionez, jada 2011. urtetik, kanpaina amaitutakoan egiten dira laguntza horien ordainketak. Beraz, jada aurtengo ekainean amaitu ziren SIGCrekin parekatutako 2020ko kanpainako laguntzen ordainketa guztiak.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak egin duen curriculum proposamen berriari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak egin duen curriculum proposamen berriari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko aurkeztu duen 10-21/PES-00302 galdera dela eta, hona Hezkuntzako kontseilariak ematen duen informazioa:

2021eko irailaren 29an, jendaurreko aurretiazko kontsulta egin da Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuak egiteko prozedura abiarazten duen foru aginduari buruz.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak deituta, Hezkuntza Konferentziako Ikasketen Antolamendurako Batzordeak bideokonferentzia bidezko bilkura egin zuen uztailaren 29an, 09:30ean.

Bilera horretan gai hauek jorratu ziren:

Haur Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak arautzen dituen Errege Dekretu proiektuaren zirriborroa aurkeztea.

Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak arautzen dituen Errege Dekretu proiektuaren zirriborroa aurkeztea.

Hezkuntza Departamentuak honako iradokizun hauek bidali dizkio, horretarako ezarritako epean, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko Ikasketen Antolamenduko Zuzendariordetza Nagusiari:

### “Iradokizunak, Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen Errege Dekretu proiektua dela eta

2. artikulua:

– LOMLOEren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, zehaztuko al dira bertan adierazitako elementuak?

8. artikulua:

– 5. apartatua: iradokitzen da 5. apartatua bere bigarren esaldira murriztea (Ukitutako autonomia-erkidegoek erabakitzen duten tratamendua jasoko du arlo horrek, eta beti bermatuko da bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasun nahikoa lortzearen helburua), esaldiaren hasiera moldatuta; eta lehenbiziko esaldiaren testua (Hizkuntza propio eta ofiziala duten autonomia-erkidegoetan, salbuespenak ezarri ahal dira kasuan kasuko arloa ez ikasteko edo arlo horretan ebaluatua ez izateko, autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzekin) 15. artikulura (Ebaluazioa) aldatzea, azaltzen duenaren izaera kontuan hartuta.

15. artikulua:

– Komenigarria litzateke argi uztea ikasmaila bikoitietan bakarrik errepikatzen ahal dela. Hori garbi ondorioztatzen da 1. apartatuaren testutik, baina ez hain garbi 3. apartatuaren testutik.

– Iradokitzen da beste apartatu bat gehitzea 1. eta 2. apartatuen artean: “Hurrengo ikasmailara edo etapara pasatuko da irakasle taldeak uste duenean lortu ez diren irakaskuntzek, halakorik bada, ez diotela ikasleari galarazten bere hezkuntzan aurrera egitea aprobetxamendurekin. Betiere, aurrera eginen dute irakasle taldearen iritziz gaitasunen garapen egokia lortu duten ikasleek”.

– 3. apartatua: ahalik argien gera dadin ikasmaila bikoitietan bakarrik gerta daitekeela ikaslea ez pasatzea hurrengo ikasmailara, komeni litzateke 3. apartatuaren testua aldatzea, honela: “Inoiz, behin erabili ondoren ikaslearen curriculum-desoreka edo ikasteko zailtasunak zuzentzeko ohiko neurriak, nahikoak, egokiak eta pertsonalizatuak, irakasle taldeak uste badu ikaslearen garapena sustatzeko neurri egokiena dela beste ikasturte bat ikasmaila berean egitea —alegia, bigarren, laugarren edo seigarren ikasmailan—, berriazko indartze plana antolatuko da, beste ikasturte horretan ikasleak behar duen gaitasun gradua lortu ahal dezan. Erabaki hori behin

bakarrik hartu ahalko da etapa osoan, eta betiere salbuespenezkoa izanen da”.

– 4. apartatua: egokia litzateke esaldiaren amaiera osatzea, “edo hurrengo etapara” erantsiz; izan ere, zikloz aldatzea soilik aurreikusten du, eta ez etapaz.

– 5. apartatua: komenigarria litzateke argitzea ea Lehen Hezkuntzako 6. mailako txostena ikasleei etapa amaitutakoan eman behar zaien txostena bera den —15.5 artikuluan aipatzen dena— edo aldi berean gertatzen diren bi txosten desberdin diren.

– 6. apartatua: guraso edo legezko tutoreek eskuragarri izanen al dituzte beren seme-alaba edo tutoretzapekoen ebaluazioen agiri ofizialak eta ebaluazioetako azterketak eta agiriak? Apartatu honen egungo testuan ez dago argi hala izanen ote den.

16. artikulua:

– 6. apartatua: curriculum-gaitasunaren mailan desoreka duten ikasleak beren adinaren arabera-ko ikasmilan gabe beheragokoan eskolatzeko aukerari dagokionez, uste dugu komeni litzatekeela “ziklo bat edo gehiago” zehaztea.

20. artikulua:

– 1. apartatua: apartatu honen testuak zer esan nahi du, akta bana eginen dela sei ikasmailetan, edo ziklo amaierako ikasmailetan bakarrik eginen dela akta, aurrera egin ala errepikatu erabaki behar denean?

Era berean, apartatu honek ebaluazio akten osagaiak ezartzen ditu, eta egokia litzateke zehaztea ea horiek izanen diren osagai bakarrak edo beste elementu batzuk gehitu ahalko zaizkien.

Halaber, lagungarria izanen litzateke zehaztea ea aktetan ez den jasoko gaitasunen inolako aipamenik, ziklo amaierako ikasmailetakoa aktetan behintzat.

– 2. apartatua: zuzena al da Oinarrizko Hezkuntzari buruz egiten den aipamena, errege dekretuaren xedea Lehen Hezkuntza arautzea izanda?

#### **Irakozizunak, Lehen Hezkuntzako arloen curriculum-garapeneko eranskinak direla eta**

Behin azterturik Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak autonomia-erkidegoetara igorritako eranskinak, zeinetan ezartzen baita Lehen Hezkuntzako arloen curriculum-garapena, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Ikasketak Antolatzeako Atalak egokitzen jo du

eranskinari buruzko ohar batzuk helaraztea, azter daitezten.

Hala ere, eta proposamena helarazi aurretik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentu honek oso balorazio positiboa egiten du eranskinetan oinarrizko ezagutzei dagokienez jasotako tratamenduaz, eta guztiz aproposa iruditzen zaio ikasleen gaitasunen eboluzioa egiaztatzeko. Bestalde, eranskinetan autonomia-erkidegoei manio-bratarte nahiko zabala ematen zaie eranskinok pertsonalizatu edo zehaztu ahal izateko. Kasu honetan, gure Foru Komunitatearen errealitateari eta testuinguruari egokitu ahal zaizkie.

Esanak esan, eta arloetako curriculumen gaitasun-alderdia nabarmentze aldera, egokia litzateke aipatutako eranskinetako bakoitzean jasotako curriculum-atalak berregituratzeko aukera baloratzea. Hartara, eta curriculumaren oinarrizko osagaiak aldatu gabe, bestelako egitura batek gaitasunei zalantzarik gabe lotutako ikusmoldea eskaini lezake, bai eta une oro curriculum-osagai guztien trazabilitatea azalera ekarriko lukeen irakurketa eredia ere.

Uste dugu egitura berri batek lagunduko lukeela argiago bistaritzen ziklo-aldaketetako ebaluazio irizpideen testuan dauden ñabardura guztiak, bai eta oinarrizko ezagutzetako gai multzoetan jasotako ñabardura guztiak ere, etapak dituen hiru zikloetako bakoitzean jaso direnak. Hori horrela, curriculum-osagaien trazabilitatea, arestian aipatua, sustatzeaz gain, ñabardura multzo hori bistaratzeko bide emanen luke, halaber, zehaztasun handiagoz egiaztatzeke zenbaterainoko eragina izanen luketen ebaluazio irizpideek eta oinarrizko ezagutzek kasuan kasuko gaitasunari ekiterakoan.

Aurrean azaldutako guztia ikusirik, Ikasketak Antolatzeako Atal honek iradokitzen duen egitura-tekak behean ageri den sekuentzia izanen luke:

– Arlorako sarrera: kasuan kasuko arlorako sarrera mantentzea jaso beharreko lehenbiziko elementutzat, igorritako eranskinetan gaur egun agertzen den modu berean.

– Berriazko gaitasunak: berriazko gaitasun guztiak testu jarraitu batean azaldu ordez, proposatzen da gaitasunak banaka azaltzea testuan, bereziago, eta haiei bakoitzetik esekitzea lotuta dauzkan irteerako profilarren deskriptoreak (oraintxe eranskinetan agertzen den gisan), haiei lotutako ebaluazio irizpideekin batera, zikloz ziklo azalduta..

– Oinarrizko ezagutzak/Edukiak: testu jarraituaren ordez, proposatzen da gai multzo bakoitza bereiztea, dagozkion ezagutzeekin batera, eta dena zikloka antolatzea, trazabilitatea errazte aldera.

Adibide gisa, egindako ekarpenetara hurbiltzen den azalpen bat eskaintzen dugu, Matematika arloa erreferentzia harturik.

#### MATEMATIKA

Matematikak ezinbesteko eginkizuna betetzen du gure gizartean, eta pertsonen jardura guztietan agertzen da. Bere izaera instrumentalaren ondorioz jakintza-arlo gehienekin du lotura: naturaren zientziekin, ingeniartzarekin, teknologiarekin, gizarte zientziekin eta are artearekin zein musikarekin ere. Gainera, matematikak badu berezko balioa.....

#### BERARIAZKO GAITASUNAK:

1- Emozioak identifikatzen eta kudeatzen laguntzen duten trebetasun pertsonalak garatzea, errorea ikaskuntza prozesuaren osagai dela onartzea eta ziurtasunik gabeko egoeretara moldatzea, jarraikitasuna hobetzeko eta matematika ikasten gozatzeko.

Matematikako problemak edo matematika tartean den erronka orokorrak ebazteak zeregin atsegina izan behar du. Matematika ikasteen trebetasun emozionalak eskuratzeak ikasleen ongizatea, diziplinarekiko interesa eta matematikarako motibazioa areagotzen ditu genero-ikuspegi batekin; horrekin batera, erresilientzia eta jarrera proaktiboa garatzen ditu matematikako erronka berrien aurrean, ikaslea jabetzen baita erroreak ikasteko aukera ematen duela eta askotariko emozioek pertsona gisa hazten laguntzen dutela. Horretarako, ikasleek beren emozioak identifikatu eta kudeatu behar dituzte, estres iturriei antzeman, jarrera positiboari eutsi, saiatuak izan eta modu kritiko eta sortzailean pentsatu. Gaitasun hau lantzeko lagungarria da, halaber, matematikak historian zehar garapenerako egin duen ekarpena aztertzea genero-ikuspegitik. Hori guztia dela medio, ikaskuntzari buruzko jarrera egokia garatuko da, eskuratutako trebetasunak bizitzako beste eremu batzuetara hedatuko dira, eta ikaskuntza eta pertsonaren ongizatea sustatuko dira gizabanakoaren bizi prozesuaren atal gisa.

Berariazko gaitasun hau irteerako profilaren deskriptore hauekin lotuta dago: CCL1, STEM1, STEM4, STEM5, CPSAA1, CPSAA3, CE2.

#### Ebaluazio irizpideak:

##### LEHEN ZIKLOA

1.1. Nork bere oinarrizko emozioei antzematea matematikako erronka berriei heltzean, eta beharrezkoa denean baino ez eskatzea laguntza.

1.2. Matematikako erronka berrien aurrean jarrera positiboak agertzea, eta erroreak ikasteko aukera ematen duela jabetzea.

#### BIGARREN ZIKLOA

1.1. Matematikako erronka berriei heltzean norberaren emozioak identifikatzea eta beharrezkoa denean bakarrik eskatzea laguntza, autokonfiantza garatuz.

1.2. Matematikako erronka berrien aurrean jarrera positiboak izatea, hala nola ahalegina edo malgutasuna, eta erroreak ikasteko aukera ematen duela jabetzea.

#### HIRUGARREN ZIKLOA

1.1. Norberaren emozioak erregulatzea eta zenbait indargune eta ahulezia aitortzea, hartara autokonfiantza garatuz matematikako erronka berriei heltzean.

1.2. Matematikako erronka berrien aurrean jarrera positiboak hautatzea, hala nola jarraikitasuna edo ardura, eta erroreak ikasteko aukera ematen duela jabetzea.

**2- Trebetasun sozialak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak onartuz eta errespetatuz, modu aktiboan parte hartuz lantalde heterogeneoetan, rolak esleituta daudela.....**

Berariazko gaitasun honen bidez landu beharreko balioak dira begirunea, tolerantzia, berdintasuna eta gatazken ebazpen baketsua.....

Berariazko gaitasun hau irteerako profilaren deskriptore hauekin lotuta dago: .....

#### Ebaluazio irizpideak:

##### LEHEN ZIKLOA

2.1.....

2.2.....

##### BIGARREN ZIKLOA

2.1.....

2.2.....

##### HIRUGARREN ZIKLOA

2.1.....

2.2.....

Eta abar.

#### OINARRIZKO EZAGUTZAK:

#### A- Sen sozioemozionala:

##### LEHEN ZIKLOA

1. Sinesteak, jarrerak eta emozioak

– Kudeaketa emozionala: matematikaren aurrean nork bere emozioak identifikatu eta adie-



razteko estrategiak Matematika ikasteko jakinmina eta ekimena

2. Talde-lana, inklusioa, begirunea eta aniztasuna

– Gelako ikaskideen arteko desberdintasunen aurrean bereizkeriazko jarrerak antzeman eta gaitzestea. Jarrera inklusiboak.

– Modu aktiboan parte hartzea talde-lanean: elkarrekintza positiboa eta elkarren lanaren errespetua.

– Zenbakien ekarpena giza jakintzaren eremu guztietan, genero-ikuspegitik.

BIGARREN ZIKLOA .....

HIRUGARREN ZIKLOA

.....

**B- Sen numerikoa:**

LEHEN ZIKLOA.....

BIGARREN ZIKLOA.....

HIRUGARREN ZIKLOA.....

**C- Neurriaren sena:**

LEHEN ZIKLOA.....

BIGARREN ZIKLOA.....

HIRUGARREN ZIKLOA.....

**D- Sen espaziala:**

LEHEN ZIKLOA.....

BIGARREN ZIKLOA.....

HIRUGARREN ZIKLOA.....

**E- Sen algebraikoa eta pentsamendu konputazionala:**

LEHEN ZIKLOA.....

BIGARREN ZIKLOA.....

HIRUGARREN ZIKLOA.....

**F- Sen estokastikoa:**

LEHEN ZIKLOA.....

BIGARREN ZIKLOA.....

HIRUGARREN ZIKLOA.....

Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak arautzen dituen Errege Dekretu proiektuaren zirriborroa dela eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioari helarazitako iradokizun hauek Hezkuntza Departamentuko talde teknikoak prestatu ditu.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektuari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko 10- 21/PES-00303 galdera egin du, jakin nahi baitu zertan diren Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektua prestatzeko lanak. Hau da Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jo du lehenik diagnostikoa egitea Nafarroako kulturako lanbideei buruz, eta zenbateko txikiko zerbitzu kontratu baten bidez enkargatu du diagnostiko hori. Aldez aurretik, gaikuntza duten enpresa eta profesional batzuen proposamenak kontsultatu eta baloratu ditu. Orain egiten ari den lana da kulturako lanbideak sistematizatzea, arreta berezia jarriz

Nafarroarentzat garrantzia duten kultur sektoreei eta balio-kateari. Informazio iturri nagusi hauek erabiltzen ari dira: Nafarroako Ogasuna, Errealitate Sozialaren Behatokia, Nastat (Nafarroako Estatistika Institutua), 2017-2023 aldirako Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren diagnostikoa, Nafarroako Kulturaren Behatokiaren txostenak, eta Estatuko zein nazioarteko erreferentziak (esaterako, Eurostat, Unesco, Kultura eta Sormen Industrien Liburu Berdea, Nafarroako Kulturaren Kontu Satelitea, Okupazioen Sailkapen Nazionala, Jarduera ekonomikoen Sailkapen Nazionala, eta abar). Beste kasu praktiko batzuk aztertzen ari dira, besteak beste Quebeceko ereduak, zeren Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokiak kulturako lanbideetako langileak eta kulturako langileak bereizten baititu. Diagnostikoak bide emanen du xehetasunez eta zehatz aztertzeko okupazioaren bolumena, diziplinak, kultura sektoreen balio-katea eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat garrantzia duten kulturako lanbideak, mapak eginez, edozein erregelamendu prestatu baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko 10-21//PES-00304 galdera egin du, jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruz. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirolo Departamentuak jakin du musikaren sektoreko

eragile batzuek Musikaren Klusterra sortzeko asmoa dutela. Haien proposamenak aztertu eta erkatu egin dira Nafarroako Gobernuarekin lerrokatu nahian. Hau da klusterra Nafarroako Gobernuarentzat: jakintza edo teknologia hornitzaile diren enpresa eta entitate batzuen multzoa, modu aktiboan jarduten dutenak lankidetzazko truke prozesuetan, elkartuta daudenak helburuko merkatu baten edo merkatu segmentu baten inguruan, eta balio-katea fokuan jartzen dutenak, Espezializazio Adimendunaren Estrategiak lehenesten dituen arlo ekonomikoen barnean. Beraz, hasierako fasean gaude, enpresen planteamenduak entzuten eta akonpainamendua egiten, ekimen pribatuaren autonomia errespetatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, erakusketa publikorako zentrozen jarduerak tipifikatu eta sustatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erakusketa publikorako zentrozen jarduerak tipifikatu eta sustatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko 10-21//PES-00305 gal-

dera egin du, jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak zer eginen duen erakusketa publikoko zentroetako jarduerak zehaztu eta sustatzeko xedez. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren menpeko Museoen Zerbitzua ondarea erakusteko zentrozen mapa egiten ari da haiek identifikatu eta sailkatzeko eta haien ezaugarriak zehazteko. Gaur egun zerbitzu horrek Interneteko zenbait tresna ditu museoen eta museoetako bildumen zabalkunderako. Tresna horiek aztertu eta berrikusi beharko dira, Gobernuko beste arlo batzuetan, esaterako Hezkuntzan eta Turismoan, erabilgarri dauden beste batzuekin koordinatzeko, bai eta ondarearen sustapeneko agenteek dituzten tresnekin ere.

Hobetu ere egin daitezke, eta egon badauden beste formatu batzuk ere erabili, hala nola gida didaktikoak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 2018tik partida izendun bat dago Ondarezain elkartearekiko hitzarmenerako, elkartearen funtzionamendu eta jarduerarako. Elkarte horretako kideek Nafarroako ondare guneen kudeatzaileetako batzuk ordezkatzeko dituzte, eta jarduera nagusiak prestakuntza eta aholkularitza teknikoak dira. Museoen Zerbitzuak Ondarezain elkarteko kideak barnean hartzen ditu bere prestakuntza eskaintza osoan (berdintasuna, komunikaziorako estrategiak, irisgarritasun unibertsala, tresna digitalak etab.), gai museologiko eta museografikoei buruzko aholkularitza lanetan eta informazio kanpainetan. Horrela profesionalizatu egin nahi ditu zentro horietako kudeatzaile eta langileak, zentroen kudeaketaren onarpenerako eta/edo hobekuntzarako betekizunak bete daitezzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

### **Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko 10-21/PES-00305 galdera aurkeztu du, jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak zer egingen duen erakusketa publikoko zentroetako jarduerak zehaztu eta sustatzeko xedez. Hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiko Turismoko Marketinaren eta Nazioartekotzearen Zerbitzuak, 2021ean zehar, Nafarroako turismo-helmuga sustatzen jardun du "Kultura Bizia" segmentuaren bidez. Turismo-segmentu horretan lan egiten duten enpresa eta elkarteek azoka eta mahai-ingurueta joateko aukera dute, Fitur azokara, adibidez, eta halakoe-tan haien ikusgaitasuna sustatzen eta bultzatzen da. Kultura-segmentuaren bidez Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak kultura ondarea indartzen du, hala materiala nola immateriala. Hala, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan uste dugu lan ildo horretan, Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin koordinaturik, bat egiten dugula Ondarezain elkartearen planteamenduekin.

Bai Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren webgunean bai sare sozialetan eta publizitate kanpainetan zentro horiek agertzen dira, beste hainbat kultur baliabideekin batera, eta elkarrekin konbinatzen dira askotariko informazioa eskaintzeko eta lurralde-inpaktua lortzeko. Gainera, urtean zehar beste sustapen-jarduketa batzuk egiten dira Presstrip-era gonbidatutako bloglari, influencer eta kazetariekin, eta maiz haien zentroak bisitatzen dira.

Horrelako elkarteekin batera lan egiten dugu, beraz, Nafarroa turismo-helmuga gisa kokatu ahalko duen kultur produktu turistikoa garatzeko.

Sektore Turistikoa Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzua "2020-2024 aldirako Turismoko Prestakuntza Plana" garatzen ari da, eta plan horrek badu "Turismo-gidarien Profesionalizazioa" izeneko ibilbide bat, zeinean hainbat ikastaro antolatu eta antolatzen diren. Ondarezain elkarte osatzen duten entitateen artean turismo aktibo eta kulturaleko zenbait enpresa daude, eta horiek berariaz eskaintzen zaien prestakuntza jaso dezakete kolektibo horretako kide gisa.

Antolamendu Zerbitzuan, prestakuntzaren programazioan, enpresa horietako kudeatzaileek turismo sektoreari zuzendutako prestakuntza osoa dute eskura. Izan ere, enpresa horiek turismo sektorekoak izan ohi dira.

Gainera, noizean behin publiko objektiboa zehazten da, eta gaur egun, 2021eko udazkenetik 2022ko maiatzera arteko programazioan, "Turismo-gidarien Profesionalizazioa" izeneko 1. ibilbidearen barnean lau ikastaro daude:

- Lehen laguntzak leku urrunetan.
- Desgaitasuna duten turistekiko tratua eta harremana bisita gidatuetan.
- Kulturako eta zabalkundeko kontakizunerako teknikak.
- Turismo-lanbideetan ahotsa zaintzeko teknikak.

Halaber, enpresa erregistratuak diren aldetik, Turismon sektorearentzat dauden laguntza guztiak dituzte eskura.

Amaitzeko, Turismoaren Plangintza eta Berrikuntza Zerbitzuaren bitartez sarbidea dute zeharkako beste zerbitzu batzuetarako, hala nola turismo bulegoetarako, beren establezimenduak sustatzeko, edota Nafarroako Turismoaren Behatokiak, merkatuaren bilakaerari eta joerei buruzko datu jakingarriak kontsultatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

#### **Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko 10- 21/ PES-00305 galdera egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren menpeko Museoen Zerbitzua ondarea erakusteko zentroen mapa egiten ari da haien identifikatu eta sailkatzeko eta haien ezaugarriak zehazteko. Gaur egun zerbitzu horrek Interneteko zenbait tresna ditu museoen eta museoetako bildumen zabalkunderako.

Hezkuntza Departamentuak adierazten du prest dagoela dauden baliabideak hobetzea ahalbidetuko duten jarduketak Kultura Departamentuarekin koordinatzeko, zentro horietan egiten diren jardueren sustapena hobetzea helburu.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpui

## **Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernua prest dagoen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko, erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta antolatuko dituen.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Nafarroako Gobernua prest dagoen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko, erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta antolatuko dituen. Galdera 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00306), jakin nahi baitu ea Nafarroako Gobernuak erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta ordenatuko dituen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko asmorik duen, eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten duen foru lege proiektu hori onestea. Hona hemen Nafarroako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Museoen Zerbitzuen bitartez, joan zen irailaren 20an jardunaldi teknikoa antolatu zuen, eta han bildu ziren museoen arloko 200 bat profesional, autonomia erkidegoetakoak nahiz Estatuko Administrazioakoak. Txosten bat aurkeztu zuen Ondarezain elkarteak, Nafarroako museoen, bilduma museografiko iraunkorren eta erakusketa publikorako bestelako zentroen kudeatzaileek osatuak.

Jardunaldiaren egitarau osoa esteka honen bidez ikus daiteke:

<https://www.navarra.es/documentos/48192/10612886/200920CU21PROGRAMA+JORNADA+OME+20+sept++01.pdf/040a30b3-7e3c-c6d2-2c4c-2ac13db62d02?t=1632138468740>

Jardunaldiaren helburua izan zen elkarri entzutea eta eztabaidatzea museo kontzeptuaz eta museoei buruzko Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeriaren onespenez eta aplikazioak sorrarazitako egoeraz.

Gaur egun, Museoen Zerbitzua ondarea erakusteko zentroen mapa egiten ari da, zentroak identifikatzeko eta haien ezaugarriak zehazteko. Informazio horrekin, Zerbitzuak museoen arloko politika eta kudeaketa eredu baten proposamena aurkeztuko dio Vianako Printzea Erakundea –

Kultura Zuzendaritza Nagusiari, eta baliteke proposamen horretan lege indardunaren aldaketak jasotzea edo, alderantziz, aldaketarik ez jasotzea. Eredua taxutzeko ezinbestekoak diren lan eta azterketa teknikoan epeen mende egonen da proposamena.

Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan sartzeari dagokion guztian, Museoen Zerbitzuak aholku ematen die hala eskatzen dioten erakusketa zentroeiei, eta 2021ean

beste zentro bat sartu da erregistroan bilduma museografiko iraunkor gisa. Horrenbestez Nafarroan baditugu horrelako 14 zentro.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00307), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Osasun Departamentuak ba al dauka, 2015etik 2019ra bitarteko legegintzaldiaren fruitu, Osasunari buruzko Foru Lege berrirako zirriborrorik?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Osasun Departamentuak ez du hain justu Osasunari buruzko Foru Lege berriaren zirriborrorik 2015etik 2019ra bitarteko legegintzaldiaren fruitu. Badira zenbait lan-elementu —ez dira ez barnean ez kanpoan adostuak— arau hori prestatzeko oinarri sendoak izan daitezkeenak, kasua bada. Norabide horretan lehen urratsak egin ziren legegintzaldi honen hasieran, atariko zenbait harreman eta trantsizio-bilera egin baitziren, baina eten egin ziren Osasunaren Mundu Erakundeak 2020 hasieran SARS-CoV-19aren pandemia deklaratu zuenean. Orduan, ezinbestean, ahalegin eta indar guztiak bideratu behar izan ziren

pandemiaren kudeaketa sanitariora. Eta horretan ari gara eta jarraitzen dugu.

Zorionez, pandemiaren beste fase batean sartu gara. Nahiz eta hemen, Espainiako gainerakoan eta munduan oraindik ere zalantzak eta ezagutzen ez ditugun balizko aldagaiak izan, berriz heldu diegu burutu gabeko aztergai eta erronka batzuei, behar-beharrezkotzat jotzen baitugu horiek lehenbailehen landu eta ebaztea, gure Komunitatearen osasuna eta osasun arloko arreta hobetzeko.

Aurrekari horiekin eta esparru horretan, bidezkoa da legegintzaldi honetako helburuak eta lehentasun estrategikoak berrikustea, bai orokorrean eta bai araugintzaren esparru zehatzean ere.

Gaur egun berriz ezartzen ari gara lehentasunak, egungo denbora-esparruan eta testuinguru sanitario, sozial eta politikoan egingarri eta bideragarri diren xedek hautatuz, ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoen bila. Araugintzaren esparruarekin zerikusia duen orori ere eragiten dio horrek, ez bakarrik aipatu legeari; eta funtsezko beste afera batzuk ukitzen ditu, legegintzaldiko balantzeari, berehalako erronkei eta epe luzeagoko apustuei buruz duela gutxi egindako agerraldian zehatz azaldu direnak. Horregatik, aztertzen ari gara nola hobetu gure Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ahalmenak eta kudeaketa tresnak. Funtsezko helburu bat da, herritarrak gehien kezkatzen dituzten osasun arazoak eta eskariak (pandemiaz gain) hobetu eta zuzentzeko. Eta ahalik eta babes eta adostasun handienarekin egin nahi dugu hori, bide eta euskarri baliagarri guztiak erabiliz.

Legezko tresna bakoitzak epe eta prozedura batzuk behar ditu, eta aintzat hartu behar dira hura posible eginen duten baldintzatzaile politikoak eta denborazkoak. Horrek garamatza, halaber, egungo denbora-esparruaren azterketa arrazionala egitera, eta hortik aterako da kronograma bat, azaldutako ildo estrategikoan aurrera egitea ahalbidetuko duena.

Izan ere, pandemiak markatu eta menpean hartutako legegintzaldi hain berezi honen bigarren zatian aukera errealak eta errealistak uztartu nahi ditugu, ikuspegi zabalagoarekin, ziklo politikoari dagokionez, arautu beharreko edukien zabaltasunagatik eta planteatutako aldaketa sakonengatik garrantzi handia duten formulen garapenaren inguruan, eta iraupen-ikuspegiarekin.

Planteamendu hori bateragarria da, alderdi instrumentalean, jardunbide mugatuago baina eraginkor batzuekin, zeinek presako eta garrantzizko helburuak lehenetsiko baitituzte Nafarroako osasun sistemaren onerako, hala kudeaketaren eta lanbide garapenaren ikuspuntutik nola herritarrentzako zerbitzu publikoarenetik, horixe baita egiaz garrantzia duena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00308) informazio hau eskatzeko: “Irailaren 23an, Osoko Bilkuran ahozko galdera bati erantzutean, Osasuneko kontseilariak adierazi zuen

Nafarroa 12. erkidegoa dela kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari dagokionez, eta 7.a, berriz, kontsultetan. Datu horiek zer iturritatik hartu dira zehatz-mehatz?”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Iturria da Osasun Sistema Nazionaleko I-txarote Zerrendei buruzko Informazio Sistemaren 2020ko abenduko txostena (SISLE – SNA). Hor jasorik dago Nafarroako Foru Komunitatea zazpigarren erkidegoa dela kirurgiako batez besteko itxaronaldietan eta hamabigarrena kontsultetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00309), COVID-19rako aginte-koadroari buruzko informazioa eskatzeko. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasun arloko arduradunek pandemia konplexua kudeatu behar dute, ertz anitzekoa, departamentu barneko, departamentu arteko nahiz autonomia-erkidegoen arteko hainbat ekintza eskatzen dituen. Horregatik, informazio iturri asko baliatu behar izan dituzte, konbinatuak eta etengabe eboluzionatzen dutenak, erabakiak hartzen joateko eta ondorioak ebaluatzeke. Formatuak eta bertsioak askotarikoak eta aldakorrik dira. Ez da erabili zehatz-mehatz pandemiaren eboluziorako Osasun Departamentuaren aginte-koadro bat. Izan ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren informazio sistemetan informazio-kontsultak denbora errealean egin ahal izateko tresna oso malguak daude, eta Osasun Publikoaren Institutuak, berriz, bere dinamikak erabiltzen ditu —maiz Osasun Ministerioarekin loturik; adierazleak datuak bidali izan dizkio fasez fase, eta testuinguruari eta bilakaerari buruzko txostenak jaso— adierazleak monitorizazio zabala eta sakona egiteko unean uneko beharren arabera.

Pandemiaren kudeaketan aritu diren lantalde eta jarduleek, gainera, COVIDaren inguruko bilera

formalak eta informalak egin dituzte, intentsitate eta maiztasun desberdineko faseetan, hala plangintzaren/ebaluazioaren ikuspuntutik nola kontingentzia hutsaren ikuspuntutik.

Departamentu honek informazioa eman dio Parlamentuari, bai talde parlamentarioen hileroko informazio eskaera sistematikoen nahiz unean uneko eskaeren bidez, bai Osasun Batzordeko kideen ordezkariekin pandemiaren eboluzioaren une nagusietan izandako bileren bidez. Galdera hau sinatu duen parlamentaria bilera horietara gonbidatua izan da, baita parte hartu ere. Uste dut garrantzitsua dela bereiztea Gobernuak erabiltzen dituen tresnak —biziak eta etengabe eguneratzen direnak— eta kudeaketa-prozesua, batetik, eta Legebiltzarrak kontrol eginkizunerako informazioa jasotzeko duen eskubide legitimoa, bestetik.

Hain zuzen, uste dugu bai egunero —Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren bitartez eta Osasun Ministerioak Nafarroatik igorritako informazioarekin emandako txostenen bitartez—, bai astero, Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak emandako buletin epidemiologikoen bitartez, edota hileroko, argitaratutako bestelako txosten publikoen bitartez, pandemiaren parametro nagusi gehienak ezagutzen eta fiskalizatzen ahal direla. Informazio horren osagarri, bestalde, erantzuna eman zaie zure galderan aipatutako informazio eskaera zehatzagoi eta hilerokoei, eta halakoak ontzat eman dituzu orain arte, nahiz eta pandemiaren bilakaeraren ondorioz datu nagusiak murrizten joan diren, fenomeno bera bezala.

Dena den, aztertuko dugu nola aberastu pandemiaren azken fase honetan eta normaltasun handiagoko egoerarako trantsizioan Legebiltzarraren esku jar daitekeen aldi behingo informazioa, betiere Parlamentuak bere erabakietan eta prozedura-txostenetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## **Galdera, Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00310), jakin nahi baitu zeintzuk diren Nafarroako Txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren eginkizunak, eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zergatik ez duen Nafarroako Txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren bilerarik deitu COVID-19aren aurkako txertoaldi guztian. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1990eko urtarrilaren 12ko Foru Aginduak arautzen du nola eratzen ahal diren Osasun Departamentuaren aholku batzorde teknikoak, osasun arloko jardueri eta jakintza eremu espezializatuei buruzko etengabeko aholkularitzarako. Batzorde bakoitza sortzeko foru aginduan zehaztuko dira beraren izena eta osaera.

Txertaketa osasun publikoko neurri eraginkorra da gaixotasun transmitigarrien prebentziarako, kontrolerako eta are haietako zenbaiten ezabaketarako; garapen teknologikoari esker etengabe eskuratzen ahal dira txerto berriak; egoera epidemiologikoari aurre egiteko immunizatze programak ezarri beharra dago; txertaketa programen eraginkortasuna eta kostua baloratu dira. Horrek guztiak eraginda, Txertoen Aholku Batzorde Teknikoa sortu da, eta 1990eko urtarrileko foru aginduan ezartzen diren eginkizunak ditu, alegia, txertaketa programak diseinatzen, ezartzen eta ebaluatzen laguntzea; immunizazioaren bidez aurrea hartzen ahal zaien gaixotasunen egoera

epidemiologikoa aztertzea; Estatuko eta nazioarteko osasun erakundeek gaixotasun transmitigarrien kontrolerako ematen dituzten gomendioak aztertu eta Foru Komunitateko txertoen egutegia irizpide horietara egokitzea, Osasun Departamentuak arlo horretako jarduketak egin ditzan sustatzeko eta horietan laguntzeko. Helburua da gaixotasun transmitigarriei lotutako patologiak murriztea, kostu/onura erlazio oneneko ekintzak lehenetsiz.

Txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren deialdiak egin dira une nagusietan eta prozesuaren ikuspegi zabalagoarekin, eta iritzia eskatu izan zaio. Egoera honetan, Osasun Ministerioak koordinatu du COVIDaren kontrako txertaketa estrategia. Txertoen Ponentzia izan da organo teknikoa, txertaketari buruzko jarraibideak proposatu dizkiona Osasun Publikoko Batzordeari, onets zitzan. Zenbait egoeratan Lurraldearteko Batzordeak ere esku hartu du. Hilabete batzuek batzorde horiek astero bildu dira. Gainera, Ministerioak erreferentziako profesionalak jarri ditu autonomia-erkidegoetan, eta haiei ere aldi behin deitu die.

Halaber, COVID-19ak sortu duen salbuespezezko egoera honen aurrean, Nafarroako txertaketa kanpainan Osasun Departamentua izan da buru, zehazki Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua eta Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzua, kudeaketa eremu kontingenteagoa baitute. Horrela lortu dira arazoei eta plangintza eta logistika egokiei buruzko ikuspegi integrala eta estrategia zabala eta hedakorra. Estrategia hori eraginkorra gertatu da, orain arte Nafarroako populazio txertagarriaren % 90 baino gehiago txertatu baita (12 urtetik gorakoak), eta Foru Komunitatean pandemiaren inpaktuari eusten lagundu du, osasun artapenaren eta laguntzaren gaineko presioa arinduz.

Behar zen informazioa bidali zaio Txertoen Aholku Batzorde Teknikoari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, zezenketetarako azientarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zezenketetarako azientarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zezenketetarako azientarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruz (PES-00312). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2021eko irailaren 30eko NAO n (229. zenbakia) argitaratu zen Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren irailaren 13ko 992/2021 Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baitira zezenketetarako behi azientaren abeltzainen zailtasun ekonomikoak konpentsatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, 2021. urterako.

Laguntza hori jasotzen ahal dute zezenketetarako ganaduaren ustiatgien titular hazleek, ustiategi horiek Nafarroako Foru Komunitatean badaude eta Abeltzaintzako Ustiatgien Erregistro Orokorrean izena emanda badaude. Diru kopuru unitarioa ematen da 8 hilabetetik gorako abere bakoitzeko, eta hautagarriak dira zezenketa-arrazako abereak, bai eta otzanak edo joaldunak ere (2021eko urtarrilaren 1ean, otsailaren 1ean, martxoaren 1ean eta apirilaren 30ean ustiatgian izandako kopuruen batezbestekoa).

Eskaera guztiak epean aurkeztu ziren, urriaren 1etik 19ra bitartean, eta 44 eskaera erregistratu ziren. Aurkeztutako agiriak berrikusi eta irailaren 13ko 992/2021 Ebazpeneko bigarren, laugarren eta bosgarren oinarriak betetzen diren jakiteko egiaztapenak egin ondoren, egiaztatu da laguntza eskatu duten ustiatgietatik 43k baldintzak betetzen dituztela eta laguntza jaso dezaketela, eta batek ez dituela betetzen osasun legeriaren baldintzak.

Ordainketa egin da jada.

Iruñean, 2021eko abenduaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 14ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00313); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuaren eta Lázaro Galdiano Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena 2009ko martxoaren 25ean sinatu zen, Madrilen, eta eguneratzearen azken fasean dago, Nafarroako Gobernu Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia eta Lázaro

Galdiano Museoko zuzendaritza egiten ari diren kudeaketan ondorioz.

Zehazki, 2021eko martxoaren 1ean, Lázaro Galdiano Fundazioaren Patronatuak, orduan Kultura eta Kiroleko ministroa zen José Manuel Rodríguez Uribes buru zuela, Begoña Torres González Museoko zuzendari kudeatzaile izendatu zuen. Hain zuzen ere, Begoña Torresen izendapenak amaiera eman zion museoak bere zuzendaritzan solaskiderik izan gabe egindako aldi luzeari. Kargua hutsik zegoen 2019ko urriaren 1ean Elena Hernandok alde egin zuenetik, Madrilgo Komunitateko Ondarearen zuzendari nagusi izendatu zutela eta.

Handik pare bat hilabetera, 2021eko maiatzaren 20an, Nafarroako Gobernuak Komunikazio eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusia, Pablo Roncal Los Arcos, Museoko zuzendari Begoña Torres Gonzálezekin bildu zen, hitzarmena berrikusi eta eguneratzeko prozesuari ekiteko asmotan. Ordura arte hitzarmena isilbidez lutzatzen zen bi urtean behin.

Hau da esparru-hitzarmenaren helburua, lehen klausulan azaltzen denez: “Alderdi sinatzaileen arteko lankidetzaren oinarriak ezartzea eta harremanetarako bide formalak zehaztea José Lázaro Galdianoren figuraren, jatorriaren, ondarearen eta

garaiaren inguruan, haren memoria iraunaraziko duten interes orokorreko kultur jarduerak egiteko”.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak, urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretuan ematen zaizkion eskudantziak ikusirik (dekretu horrek Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen du), ez du eskumenik kultur jardueren arloan, baina badu eskumena, besteak beste, Nafarroako errealitatearen zabalkunderako ekimenak antolatzeke. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak laster eguneratu nahi du hitzarmena, Lázaro Galdiano Museoa lehenetsuneko egoitza izan dadin Foru Gobernuak Madrilen Nafarroaren errealitatearen berri emateko antolatzen dituen zabalkunderako jardueretarako, zuzenean antolatu nahiz beste erakunde batzuekin eta sektore guztietako entitate eta elkar-teekin batera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteeguía

## **Galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00314), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: “Nafarroako Gobernuak zenbat mediku eta zenbat erizain sartu zituen alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura? Profesional horietako zenbat sartu zituen kontratu bidez? Mediku edo erizainik sartu al zen beste baliabide edo zentro batetik horra mugituta? Zenbat eta nondik?”. Hona Nafarroako Gobernuak

Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Alarma-egoeran zehar, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) Oinarrizko Osasun Laguntzaren bidez zuzeneko laguntza jaso zuten zenbait egoitzak; kontratu eksklusiboak egin ziren kasu batzuetan, eta oinarrizko osasun eskualdeko laguntza taldeko baliabideak bideratu ziren besteetan.

Guztira, 17 egoitzak jaso zuten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzeneko laguntza egoiliarrek zaintzeko, hiru medikuren, hogeita

bost erizainen eta Erizaintzako Zainketa Lagungarrietako hiru teknikariren bitartez.

Halaber, oinarrizko osasun eskualdeetako baliabideek osasun laguntza eman zieten egoitzazentzoei. Horretarako, oinarrizko osasun laguntzako taldeetan erreferentziako profesionalak identifikatu ziren egoitza-zentro bakoitzerako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzearen kostu ekonomikoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko 10-21/PES-00315 galdera aurkeztu du, jakin nahi baitu zenbateko kostua duen inbertsio bat foru erkidegoaren interesekoa dela deklaratzek. Hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legeak, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurri buruzkoak, administrazioa errazteko neurri administratiboen sorta bat ezartzen du, pertsona fisiko edo juridikoek errazago jarri ahal izan ditzaten abian enpresa edo lanbide jarduerak Nafarroako Foru Komunitatean. Lege horren beste xede bat da esparru juridiko bat eratzea, izapide eta prozedurak gutxitzen lagunduko duena, bai ekoizpenaren arloko proiektu

tu publikoen sustapenari begira bai negozio eta enpresa berriak sortu eta ezartzeari begira Nafarroako Foru Komunitatean. Hortaz, foru legearen xedetzat hartzen dira, besteak beste, ezinbestekoak diren administrazio-zamak kentzea, enpresa eta lanbide jarduera bultzatzeko lanetan aritzen diren eragileekin harremanak izateko bide berriak ezartzea, administrazio elektronikoaren eta prozedurak erraztu eta modernizatzearen aldeko apustua berrestea; aipatutako alderdi guztiak aintzat hartu behar dira xedapen orokorrak egiterakoan.

Foru lege horretan biltzen dira garapen ekonomikoa sustatzeko neurriak, jarduera ekonomikoak abian jarri eta garatzea errazteko neurriak eta izapide administratiboak errazteko neurriak. Lehenbiziko multzoko neurrietako bat Nafarroako garapen ekonomikoa, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak foru interesekoa inbertsio deklaratzekoa da, horren ondorioz, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek lehentasunezko eta presako bultzada eman diezaieten.

Foru legearen 4. artikulua foru interesaren deklarazioa arautzen du, honela:

4 artikulua. Foru intereseko inbertsioak.

1. Nafarroako Gobernuak, erabaki bidez, foru intereseko inbertsio deklaratu ahal izanen ditu Nafarroako garapen ekonomikoa, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak.

2. Deklarazio hori administrazio-izapidetzaren edozein unetan erabaki ahal izanen da, eta ones-ten denetik aurrera izanen ditu ondorioak. Eraba-

kian ezarriko dira moduak, baldintzak eta epeak, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da denek ezagut dezaten.

3. Proiektu bat foru intereseko inbertsioztat deklaratu duten Nafarroako Gobernuaren erabakiak, onetsi direnetik bi hilabeteko epean gehiezez ere, Nafarroako Parlamentura igorri eta Parlamentuko kasuan kasuko batzordean aurkeztu beharko dira, kalifikazio hori emateko aintzat hartu diren ezaugarriak buruz informatzeko.

4. Nafarroako administrazio publikoek lehentasunezko eta presako bultzada emanen diete foru intereseko inbertsio deklaraturakoei haien izapideetan.

5. Administrazio prozeduretan jarduera ezartzeko aurreikusi diren eta foru legeetan, foru dekretuetan eta foru aginduetan araututa dauden izapideetako ohiko epeak erdira murriztuko dira foru intereseko inbertsio deklaraturakoen kasuan, salbu eta eskaera eta errekurtsioak aurkezteari dagozkionak.

6. Era berean, erdira murriztuko dira hirigintza planeamenduaren izapidetzearen, onespeneraren eta exekuzioaren arloan ezarritik dauden epeak, haien xedea foru intereseko inbertsio deklaraturako obrak eta instalazioak direnean.

7. Halaber, erdira murriztuko dira obra eta instalazio horien exekuzio, irekitze edo funtzionamendurako beharrezkoak diren lizentziak emateko epeak.

8. Aurreko ataletan jasotakoak eragina izanen du foru legeetan, foru dekretuetan eta foru aginduetan ezarritako epeetan; betiere, epeak ez badute jatorria Estatuko nahiz Europako legeetan, eta eraginik ez badute interesdunek bete beharretako tramiteetan.

Kontuan hartu behar da, gainera, interes publiko arrazoiek hala eskatzen dutenean presako tramitazioa egitea aurreikusten dela, arau orokor gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean:

33 artikulua. Presaz izapidetzea.

1. Interes publikoaren arrazoiak direla eta, prozedura presaz izapidetzea erabaki daiteke, ofizioz edo interesdunak eskaturik. Horrelakoetan, erdira murriztuko dira prozedura arruntaren epeak, salbu eta eskaerak eta errekurtsioak aurkeztekoak.

2. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu prozedura presaz izapidetzekoa deklaratu duen erabakiaren kontra, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jar-tzea.

Foru interesaren deklarazioak, beraz, aukera ematen du espediente jakinen tramitazioa bizkortzeko, epeak laburtuz, Nafarroako ekonomia-, gizarte- edota lurralde-garapenerako duten garrantzia aintzat harturik.

Azaldutakoak ikusirik, ezin daiteke pentsatu ez foru interesaren deklarazioak ez presako tramitazioak inolako gehikuntzarik eragiten dutenik giza baliabideak edo bestelakoak kudeatzeko kostuetan.

Erantsitako agirian doakizu eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 10ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **Galdera, Urdazubiko guardia medikoei eta Elizondoko Oinarrizko Osasun Eskualdeko plantillari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Urdazubiko guardia medikoei eta Elizondoko Oinarrizko Osasun Eskualdeko plantillari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21-PES-00316); haren bidez informazioa eskatzen du Urdazubiko Arreta Bereziko Puntuko guardia medikoari buruz. Honako hau da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Osasun Departamentuak zergatik ez zuen bete Urdazubiko Arreta Bereziko Puntuko guardia medikoa?

2021eko abuztuaren 25ean baja hartu zuen Urdazubiko guardia egin behar zuen medikuak, eta ezin izan zuten ordeztu.

SOS-Nafarroarekin adostu zen Urdazubiko erizainek egiten zutela lehen balorazioa, hala behar zenean, eta mediku baten beharra ikusten bazuten telefonoz edo 112 zenbakira deituta harremanetan jarriko zirela Elizondon guardia egiten ariko zen medikuarekin, Urdazubira joan zedin laguntzera. Oronozko lantaldea ere mobilizatu ahalko zen, behar izanez gero.

2.- Zer egunetan ez zen bete Urdazubin guardia medikoa?

Urdazubi eta Zugarramurdiko medikuak ez zuen guardia bete abuztuaren 25ean, 27an, 28an

eta 29an, baina bermatuta egon zen etengabeko eta larrialdietako arreta, arestian azaldu den bezala, Elizondoko guardiako medikuaren bitartez.

3.- Osasun Departamentuak zer neurri hartu ditu Urdazubiko guardia

medikoak betetzeko? Zer egunetan bete dira zehatz-mehatz?

Bi mediku kontratatu dira, jarduketa bereziko eskualde bateko indargarri gisa, etengabeko eta larrialdietako arreta bete dezaten goizeko ohiko ordutegitik kanpo.

4.- Nondik zetozen Urdazubin zerbitzu hori ematera heldutako profesionalak? Nola bete dira horiek hutsik utzitako lanpostuak?

O-NOZek bi lanpostu eskaini ditu. Horietako bat zerrenda luzeen prozeduraz bete da, eta bestea zerrenda laburren prozeduraz, aurrekoaren bidez kontratatuzko zailtasuna zela eta.

5.- Zertan da, zehatz-mehatz, Elizondoko Osasun Eskualde Oinarrizkoko plantilla? Plantilla bete gabe baldin badago, noiztik daude lanpostu horiek bete gabe?

Zer neurri darabilzue gogoan lanpostu horiek betetzeko?

Gaur egun, Elizondoko Osasun Eskualde Oinarrizkoan dauden 15 mediku-lanpostuetatik, bete gabe daude soilik landa eremuko larrialdi zerbitzuko bat, erretiroagatik hutsik dagoena, eta goizeko beste bat, urriaren 1etik hutsik dagoena.

Erizain lanpostu guztiak beterik daude, eta horri gehitu behar zaizkio egiturazko bi lanpostu, % 100ekoak, plantillaz gainekoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00317), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariari idatziz erantzun dezan:

“Zer aurreikuspen darabilzue doako laguntza juridikoaren erregelamendu berriaren eta haren konpentsazio ekonomikoko oinarri berrien inpaktu ekonomikoari buruz?”

Hona kontseilariaren erantzuna:

Doako justiziari buruzko araudi berriaren xedea ez da eragin ekonomiko jakin bat izatea; eta lehengo araudi indarduna aldatzeko beharra ez da sortu haren konpentsazio-oinarriak izaten ari ziren inpaktu ekonomikoaren ondorioz. Bestelako faktoreei erantzuten diete aldaketek. Hona zein diren:

- Profesional gehiago jarri nahi ziren atxilotuei laguntzeko guardiako zerbitzuan, eskakizun historiko bat betez; horrek, zalantzarik gabe, laburtu egingen ditu herritarrei arreta emateko epeak.

- Aurreko dekretua 2012an onetsi zen, eta geroztik aldaketa ugari egin dira legean, hartan jasorik ez zeuden prestazioak gehitzeko. Izan ere, aurreko dekretuak arauditik kanpo utzi zituen izugarrizko garrantzia duten zerbitzu batzuk, hi-

tzarmenen bitartez ematen zirenak, eta horiek gehituz joan dira denboran zehar. Ildo horretan, beharrezkoa zen indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzua (SAM), espetxeratuena (SOJP) edota atzeritarrena aurreikus-tea, zerbitzuok bermatu ahal izateko.

- Baliabideak berrantolatu nahi izan dira, doako justiziaren bitartez abokatuen elkargoek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuen arrazionaltasuna, koherentzia, berdintasuna eta lurraldekohezia areagotzeko, zenbait partida esfortzua irizpideen arabera birbideratuz. Hala, nabarmen igo da (140.000 euro) Emakumeentzako Laguntza Zerbitzuko (SAM) asistentzia. Beraren balioa gutxietsita zegoen, alkoholemiagatiko judizio azkarren eta horrelako beste zerbitzu batzuen aldean. Indarkeria matxistaren kontrako borrokarako baliabideak jartzea gobernu honen apustua da eta izanen da.

- Gainera, ordainsariak handitu nahi izan dira oro har, beren ahaleginaren bidez gizarte-kohe-siorako lehen mailako mekanismo hau gauzatzen duten profesionali konpentsazio justuagoa emateko.

- Tarifa berrietan ezabatu egin dira bereizkeria historikoak, alegia, biztanle gutxiagoko lurralde eremua duten elkargoetan (Tuterakoa, Tafallakoa eta Lizarrakoa) ordainsari txikiagoa izatea Iruñeko Elkargoan baino. Horretarako, ordainketa sistema aldatu egin da, eta guardiako abokatu guztien tarifaren kalkuluan oinarri hartuko da prestasunagatiko gutxieneko zenbatekoa; horri beste zenbateko bat batuko zaio, batez beste egindako asistentzien arabera. Batezbesteko hori aldatu egingen da elkargotik elkargora, eta abokatuek jasotzen dituzten guztizko zenbatekoak kasuan kasuko elkargoaren arabera dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, Mendillorriko BHIIn nahiz Berako Toki Ona institutuan antolatutako “Herri Eskolak” izenekoei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendillorriko BHIIn nahiz Berako Toki Ona institutuan antolatutako “Herri Eskolak” izenekoei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10- 21/PES-00318 idatzizko galderari dago-

kionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Ez Mendillorriko BHIko zuzendariak ez Toki Ona BHIko zuzendariak ez dakite Ikama erakundeak ekitaldirik egin ote zuen urriaren 12an. Biek adierazi dute erakunde horrek ez zuela inolako baimenik eskatu hezkuntzako instalazioak urriaren 12an erabiltzeko, eta ez bata ez besteak ez dute instalazioak erabili izanaren berririk, jaieguna izanik instalazioak itxita egon baitziren.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, VI. Inkesta Soziolinguistikoa herritarrek euskararekiko duten jarreraz egindako galderari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, VI. Inkesta Soziolinguistikoa herritarrek euskararekiko duten jarreraz egindako galderari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-21/PES-00319 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Iriarte jaunaren galderak Nafarroako Foru Komunitateko VI. Inkesta Soziolinguistikaren 27. orrialdeari egiten dio erreferentzia. Dokumentu

hori Euskarabidearen webgunean argitaratu zen ([www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)). Hona esteka:

[https://www.euskarabidea.es/fixategiak/ckfinder/files/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz\(2\).pdf](https://www.euskarabidea.es/fixategiak/ckfinder/files/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz(2).pdf)

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarraia aztertzen da orrialde horretan. Horretarako, galde-sortako 20. multzoko (20. G [20. galdera]) lau itemi emandako erantzunak kontuan harturik (adostasuna, desadostasuna, indiferentzia edo ezjakintasuna) kategoria batzuk sortu dira (galde-sortaren dokumentua erantsi da).

Galde-sortako 20. multzoko lau item horiek hartu dira kontuan euskararen erabilera sustatzeari buruzko *alde*, *aurka* eta *ez alde ez aurka* kategoriak eratzeke. Hauek dira itemak:

hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino.

— ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN SARTZEKO EUSKARA JAKIN BEHAR LITZATEKE.



– EZINBESTEKOA DA HAUR GUZTIEK EUSKARA IKAS-TEA.

– NAFARROAN JASOTZEN DIREN IRRATI ETA TELEBIS-  
TA GUZTIEK ASKOZ PROGRAMA GEHIAGO IZAN BEHAR  
LITUZKETE EUSKARAZ

Inkestatutako pertsonen eskala honetan eman  
dezakete erantzuna:

1. Guztiz ados
2. Ados, neurri batean
3. Ez ados ez desados
4. Desados, neurri batean
5. Guztiz desados
6. Ez daki / Ez du erantzuten

Kategoriak (alde, aurka, ez alde ez aurka)  
eraikitzeo, honela landu dira itemei emandako  
erantzunak:

– *Guztiz ados* eta *ados*, neurri batean eran-  
tzunak “aldeko jarrerak” eraikuntzan bildu dira.

– *Ez ados*, *ez desados* eta *ez daki / ez du*  
*erantzuten* erantzunak “ez alde ez aurka” eraikun-  
tzan bildu dira.

– *Desados*, *neurri batean* eta *guztiz desados*  
erantzunak “aurkako jarrerak” eraikuntzan bildu  
dira.

Tratamendu tekniko-estatistikoa

Datuen tratamendu tekniko-estatistikoa (barne  
sintaxia) honako hau izan da:

COMPUTE X202=G202.

COMPUTE X203=G203.

COMPUTE X204=G204.

COMPUTE X205=G205.

RECODE X202 TO X205 (6=3).

COMPUTE JARR=((6-  
X202)+X203+X204+X205)/4.

EXECUTE.

DELETE VARIABLES X202 TO X205.

RECODE JARR (1 THRU 1.4=1) (1.5 THRU  
2.4=2) (2.5 THRU 3.5=3) (3.6 THRU 4.5=4)

(4.6 THRU 5=5).

VARIABLE LABELS JARR 'Jarreraren araberako  
tipologia'.

VALUE LABELS JARR 1 'Guztiz ados' 2 'Ados,  
neurri batean' 3 'Ez ados ez desados' 4 'Desados,  
neurri batean' 5 'Guztiz desados'.

FORMATS JARR (F1.0).

COMPUTE JARR3=JARR.

RECODE JARR3 (2=1) (3=2) (4=3) (5=3).

VARIABLE LABELS JARR3 'Jarreraren araberako  
tipologia'.

VALUE LABELS JARR3 1 'Guztiz ados' 2 'Ez  
ados ez desados' 3 'Guztiz desados'.

FORMATS JARR3 (F1.0).

COMPUTE KJARR3=JARR3.

VARIABLE LABELS KJARR3 'JARREREN ARA-  
BERAKO TIPOLOGIA'.

VALUE LABELS KJARR3 1 'Guztiz ados' 2 'Ez  
ados ez desados' 3 'Guztiz desados'.

FORMATS KJARR3 (F1.0).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-  
lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua  
betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana  
Olo Hualde

## **Galdera, Nafarroako Ospitalegunearen izena aldatzearen kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ospitalegunearen izena aldatzearen kostuari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00320), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Nafarroako Ospitalegunea izenaren ordeztu Nafarroako Unibersitate Ospitalea izena erabiltzeak zer kostu izanen du seinaleztapenean, errotulazioan, paper-gauzetan edo bestelako kostu gehigarrietan?". Hona Nafarroako Gobernu-

ko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Errotulazioaren eta paper-gauzen kostuak ez ditu gogaraziko aurrez zenbatetsitako gastuak, egungo materialak erabiltzen jarraituko baita agortzen diren arte. Seinaleztapenari dagokionez, lehenago ere antzeman zen informazio nahasia ageri zela Ospitaleko barrutiko paneletan eta horiek aldatu beharra zegoela. Hori dela eta, seinaleztapen berria jarriko da pixkanaka Ospitaleko barrutian, eta seinaleetan nomenklatura berria erabiliko da, ez Ospitale osoarena bakarrik, baita bertako pabiloi guztiena ere. Ospitalearen izena aldatzeak, beraz, ez du eraginik lehendik aurreikusita zeuden egokitzapen eta hobekuntzei erantsitako kosturik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, *Telleria eta gero, zer?* liburua nahitaez irakurri beharrari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin *Telleria eta gero, zer?* liburua nahitaez irakurri beharrari buruz Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10-21/PES-00321 idatzizko galderari dago-

kionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

*Tellería eta gero, zer?* liburua Elkar argitaleak argitaratu zuen, 2017an (ISBN: 978-84-90276-94-5). 2021-2022 ikasturte honetan, Lekarozko BHIko Euskal Hizkuntza eta Literaturako Departamentua liburu hori erabiltzen ari da DBHko 4. mailako derrigorrezko irakurgai gisa, D ereduaren.

Otsailaren 10eko 25/1997 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa onesten duenak, 42. artikuluko c) eta d) puntuetan departamentu didaktikoen eginkizun hauek ezartzen ditu:

“c) Departamentuburuaren koordinazio eta zuzendaritzapean, eta Koordinazio Pedagogikora-ko Batzordeak ezarritako oinarrizko ildoak kontuan hartuz, departamentu bakoitzeko arlo, materia eta moduluei dagozkien irakaskuntzen programazio didaktikoa egitea, Curriculum Proiektuan sartzeko. Halaber, behar diren curriculumaren egokitzapenak prestatu beharko ditu”.

“e) Baliabideak eta bitarteko egokiak hautatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan estrategia metodologikoak sustatu eta errazten dituztenak”.

Apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen du Nafarroako Foru Komunitatean. Laugarren multzoan, literatura-hezkuntzari buruzkoan, DBHko 4. mailako Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren curriculuma definitzen du. Besteak beste, eduki hauek jaso dira curriculumean:

“Euskal literaturako, literatura unibertsaleko eta gazteentzako literaturako lanen irakurketa librean aritzea, atsegina hartzeko, pertsona gisa aberasteko eta mundua ezagutzeko iturri gisa, nor bere gustu eta interes literarioak gara ditzan eta irakurle autonomo bihurtu”.

“Xede literarioko eta xede didaktikoko euskarazko testuak irakurri eta ulertzea, egilearen asmoa, gaia, kasuan kasuko generoaren ezaugarri formalak eta edukia eta testuinguru soziokulturalaren arteko lotura antzemanaz”.

Lekarozko BHIko zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari igorri dion idazkian, ikastetxe horretako Euskal Hizkuntza eta Literaturako Departamentuak azaltzen du zer helburu lortu nahi dituen liburu horren irakurketaren bidez: ikasleek irakurzaletasuna bultzatu eta sustatzea, eta azken urte hauetan Baztanen antolatutako hainbat kultur jardueraren bidez euskarazko eleberrri beltzari emandako bultzadarekin bat egitea. Euskal Hizkuntza eta Literaturako Departamentuaren idazkian, halaber, liburu hori aukeratu izana honek justifikatzen da:

(...) “Ez da erraza gazteak motibatzea, eta horretan saiatzeko aintzat hartu ditugu zenbait

ezaugarri: kokapena, hizkera eta trama. Kokapenari dagokionez, bai Praten liburuan bai Aranarenean Baztango paisaia batzuk agertzen dira ikasleek erraz ezagutzeko modukoak. Ernestok Baztango hizkera darabil, eta Aranek nafarrera batua darabil. Hizkuntzaren aldaera horien erabilerak beren hizkeraren balioaz jabetzeko balio die ikasleei. Zalantza izpirik gabe, gure departamentuak jatorrizko literaturaren alde egiten du apustu, ez itzulpenen alde. Zer hoberik, bada, idazle nafar bat baino?

*Telleria eta gero, zer?* liburuak eleberrri beltzaren ezaugarriak ditu. Zuzeneko kritika egiten dio gizarteari, pertsonaiek hizkera gordina erabiltzen dute, traman kasu ilunak azaltzen dira. Eta eleberrri honetan ezaugarri horiek agertzen badira ere, deskribatzen dituen gertaerak fikziozkoak dira.” (...)

Ikastetxearen erreferentziako ikuskatzaileak 2021-10-02an ikastetxeko zuzendariarekin eta Euskal Hizkuntza eta Literaturako Departamentuko buruarekin izandako bileran, azken horrek berretsi egin du aipatu liburuaren irakurketa departamentuaren programazioan jasorik dagoela, derrigorrezko irakurketa dela eta hura irakurri eta gero ikasleek edukiei buruzko proba edo azterketa egiten dutela. Halaber, irakasle horrek azpimarratu du irakasleek ez dutela inondik inora jarrerarik hartzen igorritako galderan aipatzen den hirigintza planari buruz, ikasgelan liburu horretaz aritzen direnean. Azkenik, bai ikastetxeko zuzendariak bai departamentuko buruak azaldu dute ez dela antzeman institutuko ikasleen arteko bizikidetzara zozorik gai horren inguruan, eta institutuko ikasleak, oro har, ez direla horretan sartzen.

Beraz, uste dugu hezkuntza arloko araudiarekin bat datorrela Lekarozko BHIko Euskal Hizkuntza eta Literaturako Departamentuak hartu duen erabakia, alegia, aipatu liburuaren derrigorrezko irakurketa gisa mantentzea DBHko 4. mailako ikasle guztientzat, D ereduan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa oportunistan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00322) informazio hau eskatzeko: "Osasun Departamentuak zer egin du umetokiaren lepoko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa

oportunistan 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Umetoki-lepoko minbiziaren prebentziorako programa sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroetan gauzatzen da, emaginen agendetan; baina ez da horietan guztietan baheketa egingen, beste jarduera batzuk egin baititzakete.

Aurrekoa azalduta, Anatomia Patologikoan erregistratutako zitologiako laginak hartu dira Gespathen, programa neurtzeko datu fidagarriena direlakoan. Guztiak umetoki-lepoko zitologiak dira, eta ia guztiak (% 95) programakoak. Salbuespenez, nahiz eta ohikoa ez izan, ginekologoek ebakuntzen aurretik edo kontsultetan eskatutako zitologiaren bat egon liteke. Horrelakoak identifikatzen zailak dira, Oinarrizko Osasun Laguntzako agirian eskaeraren arrazoia azaldu ezean.

Hona hemen Nafarroa osotik jasotako laginak, taula batean:

<b>ZITOLOGIAK Ginekologia</b>			
	<b>2021</b>	<b>2020</b>	<b>2019</b>
<b>urtarrila</b>	2706	2933	3419
<b>otsaila</b>	4046	3915	4036
<b>martxoa</b>	5217	2639	4462
<b>apirila</b>	3960	417	2931
<b>maiatza</b>	4959	1498	3761
<b>ekaina</b>	4599	2522	3728
<b>uztaila</b>	2397	1903	2760
<b>abuztua</b>	2313	1771	2446
<b>iraila</b>	3944	2764	3184

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00323) informazio hau eskatzeko: "Osasun Departamentuak zer egin du bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

<b>Bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programa</b>	<b>Urtarrila-iraila 2021</b>
Gonbidapenak	<u>29.372</u>
Baheketan egindako mamografiak	<u>22.293</u>
Epe barruan egindako mamografiak	<u>708</u>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko progra-

man Osasun Departamentuak 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egindakoari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00324) informazio hau eskatzeko: "Osasun

Departamentuak zer egin du koloneko minbiziaren prebentzio goiztiarreko programan 2021eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte?". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio	2021eko urtarrila-iraila
Gonbidapenak	42.595
Egindako testak	31.537
Test positibo baliozkoak	1.390
Baheketan egindako kolonoskopiak	1.299
Polipoak berrikusteko egindako kolonoskopiak	604

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hainbat arrazoiren arabera izandako hilkortasun-tasei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hainbat arrazoiren arabera izandako hilkortasun-tasei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00325), informazio hau eskatzeko: "2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean zein izan da hilkortasun-tasa honako arrazoi hauek direla medio: sepsia, pneumonia, bihotz-gutxiegitasuna, biriketako gaixotasun buxatzaile

kronikoa, giltzurrun-gaixotasuna, garuneko eta odol-hodietako gaixotasuna, diabetes mellitusa, kardiopatia iskemikoa eta minbizia?". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Erantsitako taulan azaltzen dira Navarra Sumako parlamentariaren galderan aipatutako gaixotasunek seihileko bakoitzean eragindako heriotzen kopurua eta 100.000 biztanleko hilkortasun-tasa doitu, 2016tik 2021eko lehen seihilekora arte.

2020ko datuak behin-behinekoak dira eta baliteke gero aldaketaren bat izatea, oso txikia betiere.

2021eko datuak osatu gabe daude eta kontuz interpretatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Heriotza kopurua sei hilero bakoitzean. 2016tik 2021eko lehen sei hilero arte\*\*.

	2016		2017		2018		2019		2020		2021
Septizemia	17	9	13	17	12	11	16	16	7	10	13
Pneumonia	62	56	72	41	76	36	45	28	50	46	29
Bihotz-gutxiegitasuna	115	104	118	101	111	107	108	85	93	82	98
BGBK	113	78	103	86	99	66	91	67	93	68	57
Giltzurruneko gaixotasunak	40	43	38	43	47	57	47	55	54	40	46
Garuneko eta odol-hodietako	167	175	211	177	206	182	152	186	164	171	145
Diabetes mellitusa	74	80	92	62	64	63	70	56	57	74	57
Kardiopatia iskemikoa	181	159	179	192	209	161	186	150	167	155	149
Minbizia	818	803	796	790	768	790	754	801	825	768	798
<b>Heriotzak, guztira</b>	<b>2987</b>	<b>2756</b>	<b>3020</b>	<b>2829</b>	<b>3084</b>	<b>2743</b>	<b>2855</b>	<b>2713</b>	<b>3579</b>	<b>3074</b>	<b>2673</b>

2016ko 1. seih. 2016ko 2. seih. 2017ko 1. seih. 2017ko 2. seih. 2018ko 1. seih. 2018ko 2. seih. 2019ko 1. seih. 2019ko 2. seih. 2020ko 1. seih. 2020ko 2. seih. 2021eko 1. seih.

	2016		2017		2018		2019		2020		2021
Septizemia	2.47	1.27	1.88	2.36	1.33	1.27	1.91	0.95	1.30	1.71	1.27
Pneumonia	8.2	8.0	10.1	5.8	9.9	4.9	5.1	3.3	6.3	6.0	3.4
Bihotz-gutxiegitasuna	14.5	13.6	14.0	12.5	14.0	12.1	12.4	10.0	11.0	9.6	12.3
BGBK	17.6	12.1	16.1	14.5	15.7	10.5	14.2	10.0	14.0	10.3	8.6
Giltzurruneko gaixotasunak	5.9	5.5	4.8	6.0	5.9	7.6	6.2	7.2	6.8	5.3	5.6
Garuneko eta odol-hodietako gaixotasunak	22.2	23.9	29.0	22.5	26.4	24.1	18.9	23.4	20.7	22.4	19.1
Diabetes mellitusa	10.1	10.8	12.4	8.5	8.1	8.7	9.0	6.7	7.4	9.5	7.7
Kardiopatia iskemikoa	25.5	23.9	25.7	28.2	27.8	22.2	26.4	21.3	22.5	20.6	19.8
Minbizia	129.0	126.0	122.8	122.6	116.4	120.2	112.4	119.1	121.4	111.3	116.2
<b>Heriotzak, guztira</b>	<b>422.3</b>	<b>390.3</b>	<b>419.6</b>	<b>394.8</b>	<b>417.3</b>	<b>377.9</b>	<b>381.8</b>	<b>365.1</b>	<b>470.0</b>	<b>405.1</b>	<b>357.8</b>

\*\*2021 Datu osatugabeak

## **Galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10- 21/PES-00328), honako hau jakin nahi baitu: “Kontuan hartuta urriaren 12ko zubia, departamentuak zergatik ez zuen N-121-A errepideko obraren gaineko aurreikuspena egokitu, zubi hori hasi zenetik gertatzen ari diren auto-ilarak ekiditeko?”. Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: Herri-lanen eta Azpiegi-

turen Zuzendaritza Nagusiak N-121-A errepideko obraren aurreikuspen egokia egin zuen.

Urriaren 12ko zubiari dagokionez, azpimarratzekoa da urriaren 9an, 10ean, 11n eta 12an ez zela lanik egin galtzadan. Urriaren 8an, berriz, baliteke noizbehinka trafikoa motelago ibili izana, baina azpimarratu behar da aglomeratu lantegian gertatutako matxura izan zela moteltze horren arrazoi nagusia, aglomeratua zabaltzeko lanak luzatu egin baitziren matxuraren ondorioz.

Garrantzitsua da ohartaraztea errei batean aglomeratua zabaltzeko lanak egin bitartean errei hori trafikoarentzat itxita dagoela; noranzko berean bi errei izanda ere, bietan eten behar da trafikoa, bi errietan aldi berean zabaldu behar delako aglomeratua, bereizten dituen lerroan pitzaduraren bat sortu ez dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez